

ZUIAKARIRAKO ERREPORTAJEA: EUSKARA ELKARTEAK

Elkartearen izena

BIDABARRI EUSKAL KULTUR TALDEA

Helbidea eta kontaktua

Maisuen etxean genuen egoitza lehen, baina orain beste baten bila gabiltza. Harremanetarako telefonoa: 6766371555 (Alberto), edo posta elektronikoa: bidabarri@hotmail.com

Noiz sortu zen? Zein izan zen sortzeko arrazoi nagusia?

2004an sortu zen eta gaur egun berrogei bat bazkide ditu. Zuian euskara eta euskal kultura sustatzeko eta euskaldunak biltzeko beharra ikusten genuelako sortu genuen.

Zein da elkartearen helburu nagusia? Zein da berezitasunik handiena?

Zuiako haranean euskara sustatzeko helburuarekin jalgi zen plazara Bidabarri, eta bertako euskaldunentzako bilgunea izan nahi du, baita euskal kultura bere adierazpen aniztasunean bultzatu eta haur, gazte eta helduentzat euskarazko zein euskarari buruzko ekintzak antolatu ere.

Halaber Zuiako elkarte, talde eta instituzioekin (udalarekin) elkarlana bultzatzea ezinbestekoa ikusten du BIDABARRI elkarteak, gero euskara sustatzeko konpromiso bateratuak, zabalak eta eraginkorrak lortu ahal izateko.

Zein motatako jarduerak antolatzen ditu elkarteak? Esanguratsua den bat nabarmenduko zenuke?

Azken urteetan, askotan Zuiako beste talde eta erakundeekin batera, hainbat ekintza eta proiektu aurrera eraman eta eramaten ari da: Zuia Euskaraz, Taloterapia, hitzaldiak, Mintzalaguna proiektua (azken hau Zuiako kuadrila osorako)

Horrez gain Bidabarri dantza taldea nabarmenduko genuke, jarraipen jendetsua duena eta hainbat ekitalditan (Santa Ageda, Domaikiako piztia...) parte hartzen duena.

Irakurleentzako mezuren bat, gonbidapenen bat...

Aurreko asmo guztiak bete ahal izateko, Zuiako euskaldun eta euskararen aldeko jendearen laguntza garrantzitsua da. Eta horretarako elkartearen bazkide izatera eta egingo diren ekimenetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.